

2013 urteko ur, zabor eta estolderia zerbitzua ordaintzeko diru-laguntzak emateko oinarriak.

Trapagarango Tokiko Gobernu Batzarrak, bi mila eta hamalauko irailaren zortzian egindako bileran, honako oinarriak onartu zituen:

DIRU-SARRERA GUTXI DUTEN PERTSONEI 2013 URTEKO UR, ZABOR ETA ESTOLDERIA ZERBITZUA ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

1. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA.

Diru-laguntza honen xedea da diru-sarrera gutxi duten Valle de Trápaga-Trapagarango herritarrei ur, zabor eta estolderia zerbitzuengatik udal tasen gastuak ordaintzea.

2. BALIZKO ONURADUNEN BETEKIZUNAK.

Onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Valle de Trápaga-Trapagarango herritarra izatea eta gutxienez urte beteko antzintasuna edukitzea udal erroldan.
2. Diru-laguntzaren eskaeran agertzen den helbidean erroldatuta egotea, eta helbide horri dagozkionak izatea diruz laguntzen diren tasen ordainagiriak.
3. Familiaren diru-sarrera garbiak ez gaintzea urteko deialdian familia batek jaso dezakeen gehienezko zenbatekoa.
4. Ez egotea zorretan Valle de Trápaga-Trapagarango Udalarekin eta diruz laguntzeko eskatzen duen ur, zabor eta estolderia zerbitzuaren tasa ordainduta edukitzea.

3. ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA

1. Eskatzaileak diru-laguntza eskaerarekin batera 2013 urteari dagozkion honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia eta familia-unitatea osatzen duten kide guztiena edo famili-liburuaren fotokopia.
- b) Familia-unitatea osatzen duten kide guztien sarrerren frogagiria.
- c) Familia-unitateko kide bakoitzaren azken Errentaren Aitorpena (PFEZ) edo, bestela, Foru Ogasunak emandako ziurtapena, aitorpena aurkeztera behartuta ez daudela ziurtatuko duena.
- d) Ur, zabor eta estolderiaren 2013 urteko azken ordain-agiria (edo, bestela, ordainketa helbideratuta dauden Aurrezki-Libreta edo Kontu Korrontearen fotokopia).
- e) Familiaren errolda- ziurtagiria.

2. Era berean, Gizarte Zerbitzuek espedientea bideratzeko egokitzen jotzen dituzten agiriak eska dakizkiote eskatzaileari. Eskatutako agiriak ez baditu aurkezten, datuak faltsutu edo isilean gordetzen baditu edo iruzur egiten baldin badu laguntza lortzeko, ukatu egingo zaio diru-laguntza.

3. Udalak eskatzaileen aitorpenak egiaztatzeko eskubidea edukiko du, eta behar beste agiri edo txosten eska dakieke beste erakunde publiko zein pribaturi.

4. Errenta-iturriak izkutatzek, aitortu ez diren ondasunak edukitzeak edo adierazitakoak baino baliabide gehiago dauzkala frogatzen duten kanpo-seinaleak agertzeak edo eskaerak ongi bete gabe edo faltsutua aurkezteak diru-laguntza ukatzea ekarriko dute, iruzur horren ondoriozko lege-erantzukizunez gain.

Udalak familia-unitatetzat joko du eskaera egiten duen pertsonaren helbidean erroldaturik agertzen diren pertsona guztiak, edo Udaltzainek egindako ziurtagirian helbide horretan bizi direla esaten direnak.

4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, oinarri hauek argitaratzen direnetik kontatzen hasita.

Eskaerak Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Gizarte Ongizate eta Berdintasun Sailera zuzendu beharko dira, eskaera formalizatuan, eta oinarri hauetako 3.1 atalean agertzen diren agiriak erantsiko zaizkio.

5. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA.

Parte hartzen dutenen arteko norgehiagoka izango da diru-laguntzak emateko prozedura.

6. DIRU-LAGUNTZA BAKOITZAREN ZENBATEKOA.

Zabor-bilketaren tasa ur eta estolderiaren gutxienezko kontsumoari gehituta ateratzen den kopuruaren bestekoa izango da Udalak emango dituen diru-laguntzen zenbatekoa. Zenbateko hori ekitaldi bakoitzerako ezarriko da eta gehienezko zenbatekoa izango da. Gehienezko kopuru hori proportzionalki gutxiagotuko da onuradunen artean, diru-laguntza honetarako uzten den urteko gehienezko diru-kopurua ez balitz nahikoa izango diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten onuradun guztien eskaerak estaltzeko.

7. DIRU-LAGUNTZA IZAPIDATZEA.

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertuta, Gizarte Ongizate eta Berdintasuneko Sailak diru-laguntzak emateko proposamena eramango du Informazio Batzordera, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

8. ORGANO ESKUDUNAK.

Gizarte Ongizate eta Berdintasunerako Informazio Batzordea da diru-laguntzak emateko behin behineko ebazpena hartuko duen organo eskuduna.

Diru-laguntzen esleipena onartzeko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da.

9. DIRU-LAGUNTZA EMATEARI BURUZKO EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA.

Diru-laguntza emateari buruzko ebazpena hartu eta hurrengo 15 eguneko epearen barruan jakinaraziko zaie onuradunei.

10. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA.

Oinarri hauen 6. atalean xedatutakoaren arabera, diru-laguntza onartzen den unean haren kopuruaren %100 ordainduko da.

11. INGURUABARRAK ALDATZEA.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak hein handi batean aldatzen badira, ebazpena ere alda daiteke.

12. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO SARRERA BATZUREKIKO BATERAGARRITASUNA.

Emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako lor litezkeen beste edozein diru-laguntza edo sarrerarekin.

Dena den, lorturiko sarrerak udalaren diru-laguntzari gehituta ateratzen den kopurua sekula ez da izango onuradunak ur, zabor eta estolderiaren udal tasengatik ordaindu duena baino gehiago izango.

13. ARAUBIDE ARAUTZAILEA.

Oinarri hauez gain, diru-laguntzen azaroaren 17ko 30/2003 Lege orokorraz eta bere arautegiaz arautuko dira diru-laguntzok. Lege hori eskuragarri dago Valle de Trápaga-Trapagarango udaleko Diru-Bilketa Sailean.

ERANSKINA

**UR, ZABOR ETA ESTOLDERIA ZERBITZUARI DAGOZKION UDAL TASAK
ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA**

..... jn. /and. NAN zk. núm:
Helbidea:....., Telefono zk.
Famili-unitatearen hileko sarrera guztien kopurua:€
Diru-sarrereren jatorria:

.....
Famili-unitatea honako pertsona hauek osatzen dute:

1. -.....
2. -.....
3. -.....
4. -.....
5. -.....

Diru-laguntza sartzeko banku kontuaren zenbakia

KUTXA/BANKOA	SUKURTSALA	KONTROL DIGITUA	KONTU ZK

ESKATZEN DU :

2013 urteko ur, zabor eta estolderiaren udal tasen ordainketa.

Eta horretarako:

ZIN EGITEN DUT:

- Agiri honetan eman ditudan datu guztiak egiazkoak direla.
- Ez dudala isilean gordetzen ondasun edo errenta iturririk.
- Ordaindu dudala ur, zabor eta estolderiaren tasa zeinarentzat eskatzen baitut diru-laguntza.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014koren(e)an

Izptua.:

BIGARRENA.- 7.000 euroko gastua onartzea, handitu badaiteke ere.

HIRUGARRENA.- 2013 urterako honako gehienezko sarrerak ezartzea:

Familia-unitateko kideak	Urteko gehienezko sarrerak
1	9240,01 euro
2	11550,07 euro
3	12474,07 euro

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014ko irailaren 12an.
Alkatea, Xabier Cuéllar Cuadra.